

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Martin Elexpuru Larrinaga
Aulesti, Bizkaia
(1939)

Aurkibidea



Biografia



Lekoiz baserrikoa, guraso biak aulestiarrak zituen. 12 senidetan laugarrena, oso gutxi joan zen eskolara (ordubeteko bidea zuen eta lan asko baserrian). 13 urterekin morroi joan zen Ispasterreko baserri batera. Harrobi batean egin zuen lan ondoren, 21 urterekin soldadu joan zen arte.

Txirindulari ona zen eta sari batzuk ere irabazi zituen.

1964an Ameriketara (Idaho) joan zen, artzain, lehenengo Homedalera eta gero Grand View-ra. Gero eraikuntzan ibili zen lanean, Mountain Homen, aireportuko etxeak egiten.

1974ean Goodingera joan zen bizitzera; kamioia erosi zuen eta belarra garraiatzeko enpresa bat sortu zuen, Jose Antonio Luzarrekin batera (10 urtera bere zatia saldu zion Jose Antoniori). 1983an ezkondu egin zen eta alaba bat izan zuten (aurretik beste alaba bat zuen). Emazteak eta biek behitegia izan zuten eta etxeak eraikitzeko enpresa bat ere bai. Goodgineko euskal etxeako kide aktiboa izan da.

Zintak

AUL-031

- **Proiektua:** Lea Ibarreko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-09-16
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Aulestiko Lekoiz baserrian jaioa

- **Erref:** AUL-031/003
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:01:31. **Bukatu:** 00:02:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aulestiarra da izatez. Gurasoak ere bertakoak zituen. Bera jaio zen Lekoiz baserriaren kokalekua. 12 neba-arrebatatik laugarrena izan zen.

2. Gerra sasoian soldaduak etxean

- **Erref:** AUL-031/004
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:02:18. **Bukatu:** 00:04:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra sasoian soldaduak egon ziren euren etxean eta beste etxe batera alde egin zuten. Ardiak zituzten mendian. Gernika bonbardatu zuten egunean, aitak ardiak etxera zeramatzanean, ardi guztiak kendu omen zizkioten, soldaduek jateko behar zituztela eta.

3. Eskolara joan beharrean, baserriko lanetan

- **Erref:** AUL-031/005
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:04:03. **Bukatu:** 00:05:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Eskolara ez zela joan dio. Ordubeteko bidea zuen. Horrez gain, maisuak gaztelan egiten zuen eta ezin ulertu. Gainera, aitak nahiago izaten zuen artzain lanetan geratzen baziren. Santa Eufemi inguruan ibiltzen ziren ardiak, baina etxetik ikusten zituzten, zuhaitz gutxi zegoen eta. Bildotsak saltzen zituzten; amak egindako gaztak ere bai.

4. Gaztak egiten zituzten etxean

- **Erref:** AUL-031/007
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:05:46. **Bukatu:** 00:07:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Berak ere ikasi zuen gazta egiten, baina amak hobe egiten zuen. Gazta nola egiten zuten. Gatzura txerrientzat. Gaztak metalezko ontzietan sikatzen utzi gero.

5. Harrobiko lana; anaia leherketaren ondorioz hil

- **Erref:** AUL-031/011
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:10:41. **Bukatu:** 00:14:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Etzetik gertu zuen harrobian lan egin zuen. Marmola ateratzen zuten. Zuloak egiteko erremintak zorroztea zen bere lana. Harrian zuloak egin eta zatiak ateratzen zituzten. Gero kableekin lotu eta kamioira kargatu. Hondarribiko lantegira eramaten ziren gero. Dinamita ere erabiltzen zuten. Anaia eta beste lankide batzuk leherketa baten eraginez hil ziren.

6. Bizikleta-lasterketetan ibilia

- **Erref:** AUL-031/015
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:15:07. **Bukatu:** 00:16:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

18 urte ingururekin hasi zen bizikletan. Ondo ibiltzen zen, batez ere aldapa gora. Berak erosi zuen bizikleta. Lasterketetan ibiltzen zen: Eibarko itzulia, Arratera igoera... Sari batzuk ere irabazi zituen.

7. Ameriketara bidaia

- **Erref:** AUL-031/018
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara bidaia
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan

Laburpena:

<p>1964an Ameriketara joan zen. Bidaiaren nondik norakoak. "Ispaster" taxilaria zuen zain aireportuan.</p>

8. Garate artzainarekin kanpero lanetan

- **Erref:** AUL-031/020
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:20:58. **Bukatu:** 00:23:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan

Laburpena:

<p>Ameriketara joan zenean, Garate taxilaria zuen zain aireportuan, Boisera eramateko. Letamendi hotelean egon zen hiru egunean. Gero mendira, hiru zaldi eta hiru mandorekin. Bitor Garate artzain eta bera kanperero. Zer lan egiten zituen.</p>

9. Kanperero lana

- **Erref:** AUL-031/022
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:24:04. **Bukatu:** 00:26:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

Laburpena:

<p>Kanperero lana. Ardiak aurrera joan ahala, beraiek ere mugitu egin behar (denda, abereak...). Ardientzat arriskutsuak izaten ziren koioteak eta "otsoak" (hartzak). Inoiz hiltzen zuten "otso"ren bat. Haren belarria eramanez gero, ehun dolar ordaintzen zituzten. 225 dolarreko soldata izaten zuten.</p>

10. Homedaletik Grand View-ra, arrantxora

- **Erref:** AUL-031/024
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:27:32. **Bukatu:** 00:29:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan

Laburpena:

<p>Artxabal izan zuen ugazaba Homedalen. Han bi urte egin ostean, Grand View-ra joan zen, beste konpainia batekin. Arrantxoan ugazabak agindutako lanak egiten zituen. Langileetako asko euskaldunak ziren.</p>

11. Belarra garraiatzen Gooding-en

- **Erref:** AUL-031/028
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:31:51. **Bukatu:** 00:34:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Bestelako lanak diasporan
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan

Laburpena:

<p>1974an Gooding-era joan zen lanera eta hango taberna batean ezagutu zuen bere emaztea izango zena. Jose Antonio Luzarrekin batera hasi zen lanean: belarra erosi, garraiatu eta saldu egiten zuten, abereentzat.</p>

12. Gooding-eko Euskal Etxea

- **Erref:** AUL-031/033
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:40:48. **Bukatu:** 00:41:43

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Gooding-en bizi izan zen arrantxoan emaztearekin. Bertako Euskal Etxea sortzen ibili zen beste batzuekin batera.

13. Bi anaia ere Ameriketara

- **Erref:** AUL-031/037
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:44:49. **Bukatu:** 00:45:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan

Laburpena:

<p>Bera joan eta gero beste bi anaia ere Ameriketara joan ziren eta bertan bizi dira. Aurretik, osaba bat zuten. Berarekin artzain ibili zen Garateren bitartez joan zen bera; bizikletan elkarrekin ibiltzen zirelako ezagutzen zuen.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-30

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com